

OSTEGUN AKUSTIKOAK – OINARRIAK:

1. **Lehiaketaren helburua:** Debagoieneko musikari gazteei beraien kantuak jende aurrean plazaratzeko aukera ematea. Eta baita udazken-neguko ostegunetan Aretxabaletako tabernetan herritarrei zuzendutako eskaintza kulturala antolatzea.
2. **Antolatzailea:** Aretxabaletako Udala.
3. **Parte hartzaileak:** 4 musika talde edo bakarlarik izango dute jende aurrean aritzeko aukera. Parte-hartzaile guztien adina gehienez 40 urtekoa izango da eta Debagoienean jaio edo bizi beharko dira.
4. **Aukeraketa:** Izena ematen dutenen artean aukeraketa bat egingo da; horretarako parte hartzaileek gutxienez 2 abestiz osatutako grabazioa aurkeztu beharko dute. Aukeraketa egiterakoan interpretazioaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dira kontuan, eta jasotako proposamenetatik 4k izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera.
5. **Emanaldiaren iraupena:** 45-60 minutu artekoa.
6. **Hizkuntza:** Emanaldiaren %50 baino gehiago euskaraz izan beharko da.
7. **Emanaldiaren ezaugarriak:** Abestiak originalak zein bertsioak izan daitezke.
8. **Emanaldiak:** Emanaldiak Aretxabaletako taberna ezberdinetan izango dira, ostegun iluntzetan, 21:00etan. Emanaldien egunak honakoak izango dira: azaroak 14, azaroak 21, azaroak 28 eta abenduak 5.
9. **Izen-ematea:** Urriaren 14tik 28ra bitartean aurkeztu beharko dira 2 abestiz osatutako grabazioak eta talde edo bakarlarien argazkiak gazteria@aretxabaleta.net helbidera idatziz edo 943 08 10 01 telefonora deituz.
10. **Publikoak emango du botoa:** Ikusleek aukeratuko dituzte irabazleak bozka emanez. Ikusleek emanaldien ostean bakarrik eman ahal izango dute bozka tabernan bertan kokatutako buzoian. Garrantzia emango zaio abeslariaren eta musikariaren abileziari, interpretazioari eta hunkitzeko gaitasunari.
11. **Sariak:** Bi sari banatuko dira. Sari nagusia (200 euro*) eta bigarren saria (100 euro*). Epaimahaiak horrela erabakiz gero, sariak hutsik geratu daitezke.
12. **Oinarrien onarpena:** Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar.